

han egon zirela aitortu dute, lokala ikuskatzen.

Gurasoen iritzia

Adin txikikoak izanik, gazte talde honen guraso batzuekin egon gara hauen iritzia jasotzeko. Hasieran adin horrekin lokala alokatzearen ideia ez zitzaizela batere gustatu aitortzen dute talde horretako gurasoek. "Bertan, kalean egin dezaketena guztia askoz ere libreago egin dezaketete, han ez dituelako jendeak ikusten". Era berean, debekatzearena ez zitzaizien guztiz ondo iruditzen gai nontzeko lagunak han bildu behar baziren. "Beraz, taldean antolatzeak dituen alde positiboak erreparatzen diegu orain. Beraiek bere dirua antolatu eta kudeatu beharokote dute. Horrez gain, etxean egiten ez dutena egiten ikasi behar dute, garbiketa, taldean antolaketa, arauak sortu eta errespetatu..."

Bigarren kategorian sartzen diren lokalen erabiltzaileekin ere egon gara. Zerukoan lokala duen gazte talde honek duela 2 urte alokatu zuen lokala. Gaur egun, 240 euroko alokairua ordaintzen dute. 16 gazte biltzen dira asteburuero bertan, hitz egiteko, elkar ikusteko, telebis-



Gipuzkoa Etorbidean zegoen tabernaren lokala erabiltzen zuten argazkiko gazteek

ta ikusteko eta jolasteko. Udalaren ordentza ondo ikusten dute, "logikoa" dela irizten diote. Beraiek ez dute arazorik izan auzokoekin, gaueko 1:30ean itxi egiten dute lokala. Horrez gain, lan talde ezberdinak dituzte, batzuk kontabilitateaz arduratzen dira eta beste batzuk, erosketek eta garbiketaz arduratzen dira.

Urriari hiru urte bete dira Gipuzkoa Etorbidean bizi den lagun talde batek Bar Pantxo zena aisialdirako lokal bezala alokatu zuela. 21 eta 24 urte bitartean dituzten 19 lagun biltzen ziren bertan

ekainera arte. Ekainean udaltzainek lokala itxi zuten auzokoek zarategatik jarritako salaketa zela eta. Gazte talde honek dionez, "Guk ez dugu inoiz ukatu zaratarik egin ez dugunik eta onartzen dugu errua gurea izan dela. Halaber, normala iruditzen zaigu minimo batzuk exigitzea baina normalarekin oso zorrotz jokatzeko ari direla pentsatzen dugu. Hau da, metro gutxi batzuegatik, jabeak obra handiak egitera behartzea ez zaigu oso justua iruditzen. Hau da, normalaren alde batzuk ez zaizkigu oso errealistak iruditzen. Udalak dio ez dituela lokalak itxi nahi, baina normala hain zorrotz aplikatuz gero, gehienak ezin izango dira zabalik mantendu". Gaur egun gazte talde honen lokalak itxita jarraitzen du eta beraiek Udalari berriz eraikitzeko eskatzen diote, irtenbide bat nahi dute. Izan ere, lokalik ez dutenetik askoz gutxiago

elkartzen direlako: "Hainbat aldiz egon gara udalaretxean ordezkari ezberdinekin hitz egiten baina, ez digute irtenbiderik eskaini berehala lokala irekitzeko eta ekainetik itxita dago. Egia esan, adarra jotzen ari zaizkigun sentsazioa daukagu eta pazientzia agortzen ari zaigu". Gazte talde gehienak bezala, lokala alokatu zuten elkarrekin egoteko, futbola ikusteko, hitz egiteko, kartetan eta futbolinean jolasteko eta baita larunbateretan trago batzuk hartzeko. Aberasgarria dela iruditzen zaie euren artean elkartzea, dirua kudeatzea, antolatzea, arau batzuk jartzea eta errespikatzea.

Alde guztiek dute zer esanena. Erreportaje honetan lokalak jabeen iritzia falta da, ezinezkoa izan da beraiekin harremanetan jartzea, baina hurrengo aleotan, ez da falta ordenantzaren inguruan lokalak jabeek duten iritzia.

Alazne Aiestaran

Lokalak gazteek kudeatzen dituzte lan talde desberdinak erabilita




URRETA

burdindenda

* Etxea	* Giltzak
* Tresneria	* Zerrailgintza
* Brikolaia	* Kit altzariak
* Rielak	

Beharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMUA



ELUR

ESTETIKA-EDERGINTZA

- Depilazioa
- Elektrologia
- Gorputz eta Aurpegirako tratamenduak
- Masajeak
- Pedikura
- Manikura (parafinarekin)
- Solariuma

Aldapa 1 **943 17 60 52**